

# B

BARREN

TOKIKOM

# Caritasen hastapenak

Miren Arrieta, Elgoibarko Caritas sortu zutenen taldekoa



# OSASUN GIDA



## OPTIKAK

65\07

**IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA**

Egunero:  
9:30-13:00  
16:30-20:00

San Bartolome, 10- Elgoibar  
Tel: 943 743 734

183\12

**UZURI**

- Optometria  
- Kontaktologia

Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00  
San Frantzisko, 21

Elgoibar - Tel: 943 740 359

## HORTZ KLINIKAK

171\12

**LEKU EDER**

- Diagnostiko digitala  
- Estetika  
- Kirurgia eta inplanteak  
- Ortodontzia: haurrak eta helduak  
- Protesiak: finkoak eta eraginak  
- Odontologia orokorra  
- Higieena eta prebentzioa  
- Periodontzia (entzien tratamendua)  
- Haurrentzako tratamenduak  
- PADI

Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre enparantza,  
5 behea - Elgoibar  
Tel: 943 530 053  
lekueder@infomed.es

## OTORRINOLARINGOLOGIA

183\12

**UZURI**

- Entzumen protesia  
**BERRIA!**  
- Tapoiak neurria (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)  
- Audiometriak  
- Audifonoak  
- Tonometria

Egunero:  
9:30-13:00/ 16:30-20:00

San Frantzisko, 21 - Elgoibar  
Tel: 943 740 359

## FISIOTERAPIA

271\12

**AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA**

- Fisioterapia eta osteopatia  
- Eskuterapiak  
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)  
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 531 953  
Tel.: 669 565 745

177\12

**fisio&más**

**Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea**

- Esku-terapia.  
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)  
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).

- Mesoterapia homeopati-koa:  
+ Traumatologia.  
+ Estetika (zelulitisa, estriak)

**Osasunerako ariketa agindua**

(Diabetes, osteoporosis, hipertensio arteriala)

**Entrenamendu gidatua**

**Pilates makinak**

(errehabilitazioa)  
3 pertsona gehien.

**Txirindulariaren biomekanika**

(kalak, ergonomia bizikletan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.

Tel.: 943 740 191  
667 953 628

**ELGOIBARKO IZARRAK PRESTATUTAKO PINTXOAK**

- TXORIRO EGOSIA 1€
- OKELA EGOSIA 1€
- SALDA O'SOGE
- BARAZIAK: Basueta (basarte-Sanxeta)
- HARNGIA: Arnueta

**Eskerrik asko**

**Elgoibarko Izarraren txosnara hurbildu zineten guztiok!**

**ELGOIBARKO IZARRA**  
Edukiak eta Zerbitzuak




Maitane Mendikute

Janiii. Zer moduz?

Arraroa egiten zait ZoZoak Beleari-ko tartetxo honetarako gaurko gaia gure agurra dela jakitzea. Izan ere, gaia aukeratzeko askatasun osoa izan dugun arren, agian bera aukeratzea izan da bu-

rukomin handiena eman diguna ere. Eta gaur, bertso saioetan legez, agur batekin esan behar diogu agur gure BARRENEko ibilbidetxoari. Zer esango dizut ba? Ba aspaldiko partez gustura aritu naizela euskara hutsean gure gogoetak plasmazen. Aitortu behar dut horrelako idazlantxoak aspaldian egin gabe nituela eta aukera polita izan dela buruari eta ordenagailuen teklei eragintxo bat emateko. Eta gustura jardun dut, guk idatzitakoa norbaitek irakurtzen zuela jakitzean. Eta ilusioa ere egin dit norbaitek kalean ea BARRENE idazten nuena ni nintzen galdetu didanetan. Pozgarria da, hainbeste jendeak aldizkaria irakurtzen duela jakitzea, benetan!



Janire Elordi

Kaixo, Maitane!

Edarki ba! Opor garaiaren ostean, beti ondo! Zuk ere dagoeneko Afrikara eramandako maleta deseginda izango duzu eta apustu egingo nuke perspektiba berriak jantzita etorriko zinela! Ordezko hortzez estalitako postu ibiltari hori ikusi eta gero behintzat, bestelako munduak, bestelako errealitateak, zeinen hurbil ditugun jabetu gara. Nik, ordea, ondoko kontinentera salto egin ez dudan arren, sakelako telefonorik gabeko oporralditxoa izan dut (zoriz, ahaztua utzi bainuen etxeko takiloian) eta guztiz deskonektaturik egon naiz, Whatsapparen momentutasunik gabe; lehengo gisan, plana egiteko halako orдутan halako lekutan geldituz, baina egia esan, guztiz indarberrituta itzuli naiz. Sakelakorik gabe, deskantsua hobe, benetakoagoa izan delakoan nago.

**“Gaur, bertso saioetan legez, agur batekin esan behar diogu agur gure ibilbideari”**

**Mila esker astekaria ilusioz jasotzen duzenoi, irakurleoi eta BARREN egiten duzenoi”**

Beti pentsatu izan dut BARRENEko tarte honetan berriak ginela, oraindik amateurrek, baina konturatu gabe bi urte pasatu dira lehenengoz idatzi genuenetik. Gogoan dut Gernikako Picassoren inguruko testu batekin estreinatu genuela gure tarte. Ordutik, batik bat gure gogoetaz hitz egin dugu. Esana didate batzuetan *zozoa eta belea* baino *sosoa eta belea* ere izan garela, baina zer egingo diogu ba! ea salitre pixkat ekartzen duten tartetxo honetara bikote berriek. Gu lehorrekoak gara, eta barkatuta gaude.

Diozun bezala, BARRENEko agurra idazteko garaia ere iritsi da, eta begiradaxoa atzera botata, denbora zeinen azkar pasatzen den pentsatzeak beldur edo tristura puntutxoa sorrarazten dit. Aro berria hasi arren, ea guk ostiral iluntzero bazterrek nahasten jarraitzen dugun, batzuetan ohitura hori lar hauskor sentitzen baitut. Niretzako plazer bat izan da BARRENERako idatziz zurekin gogoetak partekatzea eta us-te dut gaia aukeratzeko zailtasunak eman digula gure elkarizketetarako aberastasuna ere. Belekeriak faltan botako ditudalakoan ere bannago! Sosoak izan bagara, baina birigarro eta txantxangorrieei egingo diegu leku udaberriarekin batera, denok ere aro berri bati paso emaz.

Mila esker BARRENEi gure testuak zuzentzeagatik eta argitaratzeko aukera emateagatik, eta mila esker irakurleoi. Ea hurrengo bi urteak ere hain azkar eta ondo igarotzen ditugun. Eta ea BARRENEk beste urte askoan zeresana ematen jarraitzen duen ostiraletan gure herrietan. Orain maleta egitera noa, Jani! Izango dugu zer kontatua bueltan. Muxu handi bat, eta pozik bizi!!!

Nire aldetik mila esker astekaria etxean ilusioz jasotzen duzenoi, irakurleoi eta BARREN posible egiten duzen guztioi. Seguru datozen urteak ere bizkor azkar pasako direla baina BARRENEk urte luzez jarraituko duela bazterrotako kontuak euskaraz kontatzen. Hurren arte, eta segi dezagun euskaraz bizitzen!



**ARMUETA  
HARATEGIA**

**ANGEL ARRIZABALAGA**

San Bartolome, 16 - 20870 Elgoibar  
Tel.: 943 740 640 - 630 225 428



**Euskal Okela**  
Carne de Vacuno del Pais Vasco



**Denda**  
-TIENDA ESPECIALIZADA-

# Barren

Kalebarren plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR  
☎ 943 744 112

E-posta: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)  
Webgunea: [www.barren.eus](http://www.barren.eus)

**BARREN**ek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik.

KOORDINATZAILEAK Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzirika ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEA, Jairo Berbel, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Esti Gonzalez, Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire Elordi, Inma Mugertza, Ander Izagirre INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## ARGITARATZAILEAK:



ELGOIBARKO IZARRA  
Eskutitzailearen Toponimia

## LAGUNTZAILEAK:



ELGOIBARKO UDALA

elgoibarko  
biZi-biZiXal



MENDAROKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### Uparitzaga kalea dela-eta

Lehenago astean Uparitzaga kalean bizi garenok Udaletik gutun bat jaso genuen kalearen izena aldatzen zela adieraziz. Hasiera batean Upaiz Zaharra zena orain Uparitzaga da. Gu al daketa honetaz aspaldi konturatuak geunden. Udaletik iritsi zaizkigun zorion gutunetan, zergeta eta Udalak emititutako dokumentu ofizialetan (errolda agirian adibidez) Uparitzaga agertzen baita duela urte bete baino lehenagotik. Oso ondo iruditzen zait Udalak herritarro bizi garen kalearen izen aldaketari buruz berri ematea, baina kasu honetan abisu hau berandu samar iritsi dela uste dut.

N.E. ☞

### Mila esker

Urpekaritzari buruzko bigarren jardunaldi hauek harrera askoz hobea izan dute lehenengoek baino, eta eskerrak eman behar dizkiegu, bereziki, Elgoibarko Udalarari eta Kirol Patronatuari, eurek egin zigutelako jardunaldiak Olaizaga Kiroldegian egiteko proposamena. Gainera, Udalak oroigarri bat eman zigun Ricardo Garte eta Ramon Mujikaren eskutik gure 25. urteurrena zela-eta.

Balorazio oso positiboa egin dugu, eta hurrengo urtekoarekin pentsatzen hasiak gara dagoeneko. Eskerrak eman nahi genizkieke baita ere ondorengo guztiei, eskaini diguten guztiagatik: Kultura Saila, Gipuzkoako Urpeko Jardueren Federazioa, Elgoibarko Izarra (Atxutxiamaika, Ludoteka, Gaztelekua), BARREN astekaria, *Diario Vasco*, *Noticias de Gipuzkoa*, kiroldegiko jatetxea, kiroldegiko langileak. Eta, nola ez, gure erakusketa ikustera eta ekintzetan parte hartzera etorri diren herriko eta kanpoko jende guzti horri ere, mila esker, beraiek gabe lan honek guztiak ez lukeelako zentzurik izango.

Urbizi Urpekaritza Taldea ☞

### Helduentzako hezkuntza

Euskal erkidegoko Helduen Hezkuntzako Ikastetxeetako 26 zuzendari bildurik, Eibarren 2015eko martxoaren 12an, Hezkuntza departamentuak akordioetara heltzeko agertzen duen borondate ezaren aurrean, gure ardura adierazi nahi dugu. Helduen Hezkuntza oso da garrantzitsua gizartearen integrazioarako gizar-

tearentzat eta helduek bizitzaren zehar duten ikasteko gogoari erantzuteko.

Hezkuntzak gizarte desberdintasunak gainditzeko bide bat izan behar du, eta are gehiago langabezia eta horrenbeste lan arazo dugun momentu honetan. Joan den ikasturtean irakasleen %10eko murrizketa jasan zuten gure ikastetxeek. Momentu honetan ez dakigu Hezkuntza Sailak zein irizpide jarraituko duen datorren ikasturteko plantilak osatzeko, nahiz eta Hezkuntza Sailarekin hainbatetan bildu izan garen. Bilera horietan departamentuak gure aldetik planteatutako zalantza eta eskaerei ez die inongo erantzunik eman.

Hezkuntza Sailak ez die aurre egiten sailari berari dagozkien ardurei, ez dielako gizarteak behar dituen prestakuntza beharrei erantzuten. Heziketa programak eta irakasle plantila murriztu eta murriztu besterik ez du egin. Ikastetxeek horrela ezin dute aurrera eroan euren heziketa eskaintza modu eraginkorren.

Sailak ikastetxeek mahai gainean jarritako eskakizunei erantzungo ez balie, bestelako erantzun bat ematera behartuko gintuzke. Erantzun horiek lankideekin eta oso sentsibilizaturik dagoen ikasleriarekin batera emango genituzke.

Helduen Hezkuntzarako Ikastetxea ☞

### Eskerrik asko

Lerro hauen bitartez eskerrak eman nahi dizkiet udaltzainei, martxoaren 21eko arratsaldean egin nien eskaerari azkar eta ondo erantzun zirelako. San Rokeko 24-26 eta 28 etxebizitzan aurreko parkean, Juan Mugertza kale inguruan, gazte talde bat *botilloia* egiten ari zen eta haiek handik bidaltzera etorri ziren. Esan behar dut zapatu arratsaldetan ohikoak direla horrelako ekintzak toki horretan, eta zaborra jaso beharrean, dena han bertan botata lagatzen dutela: plastikozko edalontziak, tapoiak, plastikoak, tabako hondakinak... Gizalege falta argia.

J.A.G. ☞



**Jatekoa zakarrontzira botatzen du jendeak:** “Lotsagarria iruditzen zait! Alde batetik jatekoa biltzeko kanpaina bereziak egiten dira beharra dutenei laguntzeko, eta bestetik, jendeak egoera onean dagoen jatekoa zakarrontzira botatzen du. Ez dago eskubiderik! Lan handia egin genuen azken janari bilketan, herritar asko inplikatu ginen, denok bolondres, eta gero zakarrontzian horrelakoak aurkitzeak min ematen du”.



**Auto gidariek ez dute oinezkoentzako lekuri lagatzen:** “Santa Ana kale amaieran argi eta garbi adierazita dago lurrean oinezkoentzako bidea dela, baina hala ere, auto asko bide horretan egoten dira aparkatuta. Jende asko joaten da Maltzagara paseatzera, eta eskertuko genuke oinezkoentzako bide hori errespetatzea”.



**Kiroldegiko spinning bizikletek informazioa emateko aparatua falta dute:** “Lotsagabe galanta izan behar da denona dena kendu eta etxera eramateko, baina ez zait bidezkoa iruditzen arduradunek urtebete eta erdian berririk ez jartzea. Gainerako bazkideok mereziko dugu ba horrenbeste ordaintzen duguna kontuan hartuta! Gela hori, gainera, kamaraz zaindutakoa da berez, beraz kaltea ordain dezala egin duenak!”.



**Garajeko ate aurrean kaka egin digute:** “Ez dago eskubiderik! Garajeko ate aurrean kaka pila handi bi egin dizkigute, eta ez du ematen txakur kakak direnik. Errespetua eskatzen dugu”.



## Ekintzaileentzako tailerrak eskainiko dituzte Debegesak eta Udalak apirilean, 'Ekiten lagundu' egitasmoaren barruan

Apirilaren 13an izango da lehenengo saioa, eta guztira zortzi tailer eskainiko dituzte

Elgoibarko Udalak eta Debegesak ekintzaileentzako *Ekiten lagundu* egitasmoa prestatu dute apirilera, eta horren barruan, zortzi tailer egingo dituzte, apirilaren 13tik 19ra bitartean. Parte-hartzaileek hainbat gai jorrazteko aukera izango dute: negozio-idea nola landu, enpresa bat sortzeko aukera desberdinak (frankiziak, eskualdatzeak...), finantzazioa eta errentagarritasuna, fiskalitate be-tebeharrak, marketing plana... Ekintzaileei ezagutza eta erreminta berriak eskura jartzea da egitasmoaren helburua. Negozio ideia bat dutenek, negozio berria zabaldu nahi dutenek edota euren enpresa sendotzeko laguntza behar dutenek hartu dezakete parte. Saio hauek guztiak doakoak dira eta aurrez izena ematea beharrezkoa izango da [ekintzaile@debegesa.com](mailto:ekintzaile@debegesa.com) helbidera idatziz edo 943 820 110 telefonora deituz. Saioak goizez izango dira, Kultur Etxean.

### Herri bazkaria, Oka jokia eta beste hainbat ekintza antolatu dituzte Gure Esku Dago batzordeetakoek apirilaren 25eko Joste Egunerako

Joste Eguna antolatu du Gure Esku Dago mugimenduak apirilaren 25erako, eta Mendaroko eta Elgoibarko herri batzordeetakoak hasiak dira lanean egun horri begira. Erabakitze eskubidearen aldeko herri mugimenduak herritarren sare bat osatu du dagoeneko, baina sare hori herritar gehiagoren babesarekin handitzen, ehuntzen, joan nahi dute, eta ekainaren 21erako iragarri duten egun handirako deia egiteko baliatuko dute apirilaren 25a. Ekaineko ekitaldian, hautetsontzi erraldoiak osatu nahi dituzte, eta horretarako, herri bakoitzean oihal zati batzuk dituzte, herritar bakoitzak bere atxikimendua oihal zati horretan islatu dezan. Tella ezberdinak josiz, jende ezberdinen arteko ehuntzea irudikatu nahi dute, erabakitze eskubide hori gauzatzeko. Eta hori dena Gure Esku Dago mugimenduaren estilora egingo dute: jai-giroan. Mendaron, esaterako, herri bazkari baten bueltan osatu dute eguneko egitaraua –Bazkaritarako txartelak salgai daude dagoeneko ohiko lekuetan, 13 euroan–. Elgoibarren, berriz, Oka joko ikusgarri bat antolatu dute, besteak beste, egun horretarako.



### Mendaron, Sonia Garcia aurkeztuko du berriz ere EH Bilduk alkatetzarako



Mendaroko EH Bilduk aurkeztu du taldea maiatzaren 24an egingo diren Udal hauteskundeetarako. Sonia Garcia Raposo, gaur alkate dena, izango da koalizioaren hautagaia berriro ere alkatetzarako, eta honako beste hauek osatuko dute hamabiko zerrenda: Borja Rodriguez Barreras, Aitor Basurto Urain, Zitoritz Urain Aragon, Iñigo Bastida Etxeberria, Rosa Urain Elorza, Xeber Loiola Mallabiabarrena, Rosamari Arriola Ulazia, Aintzane Lazkano Lizundia, Asel Unanue Azpiazu, Maria del Mar Martinez Garcia eta Igor Rey Arrillagak. Argazkian zerrendakide guztiak Azpilgoetako eliza aurrean egindako talde argazkian. EH Bilduk orain hurrengo egin ziren hauteskundeetan eskuratu zuen alkatetza Mendaron.

## Izena **Leire Melgosa**

Aste Santuko opor aurretxoan banatu zituzten Lakuan Batxilergoko iazko Sari Bereziak. Hamabost ikasle saritu zituzten guztira iazko ikasturtean, eta tartean, bi elgoibartar: Leire Melgosa (IES Elgoibar-Arreiturre BHI institutua) eta Alberto Hijano (IES Mutrikuko institutua). Iaz 15.000 ikasle amaitu zuten Batxilergoa EAEn, eta 700 aurkeztu ziren azterketa honetara —hautazkoa da egin edo ez—. Leire Melgosak lehenengo saria eskuratu zuen iaz Batxilergoko Sari Berezi horietan eta argazki honetan saria jasotzen ageri da, Arantza Aurrekoetxea Hezkuntza sailburuordearekin batera. Saritutako hamabost ikasleek Torontorako bidaiara irabazi dute.



## Ekitaldia **Irakurketa publikoa**



Dispersioaren liburuxka izenburuko liburuaren irakurketa publikoa egingo dute bihar zortzi, apirilaren 18an, Elgoibarren, Kalegoen plazan. Sarek antolatu du ekimen hau, preso, iheslari eta errefuxiatuen giza eskubideen defentsan lan egiteko sortu zuten herritar sareak. 13:00etan hasiko da ekitaldia, eta lau hizkuntzataratu itzulitako liburua da irakurriko dutena. Ekitaldia sakabanaketaren gogorraz ohartzeko baliatu nahi dute. Sakabanaketa politikak presoak euren jaioterritik urruntzeaz gain, hainbat eskubide urratzen dituela gogoraraziko dute, eta zigorrari maiatasunez erantzutera deituko dute.

## Enpresa **Tratamientos Intxausti**

Greba mugagabea hasi zuten martxoaren 23an Elgoibarko Intxausti Tratamientos Superficiales SL enpresako beharginek, baina martxoaren 27rako akordioa lortu zuten enpresako zuzendaritzarekin eta bertan behera utzi zuten greba. Lortutako akordioarekin pozik azaldu dira LAB sindikatuko ordezkariak: soldata igoera lortu dute, %4,5ekoa, aldi baterako laneko enpresen bitartez kontrataziorik ez egiteko enpresaren konpromisoa, lan kontuek sortutako aldi baterako ezintasun baje osagarria %100 izatea, hobe-kuntzak lan osasun alorrean, eta azkenik, Gipuzkoako metaleko hitzarmenari loturiko Enpresa Hitzarmena. LAB sindikatuak "oso positibotzat" jo du akordioa, eta nabarmendu du langileen "mobilizazio, kohesio eta egin duten presioaren" ondorioz lortu dutela Gipuzkoako metaleko hitzarmenari lotutako akordioa.



## **Sofia Vazquez izango da PPren Elgoibarko hautagia alkatetzarako**

PPk aurkeztu du Elgoibarren Javi Nuñez ordezkaturiko duen laguna: Sofia Vazquez izango da alderdi popularraren alkategaia maiatzaren 24ko hauteskundeetan.

## **Danborradako kartela aukeratzeko lehiaketa egingo du Atabal elkarteak**

Urtero egin ohi duen legez, danborradako kartela aukeratzeko lehiaketa antolatu du Atabal elkarteak. 18 urtez gorakoek hartu ahal izango dute parte, eta teknika librean egin ahal izango dituzte lanak, A2 neurrian edo haren proportzionalan. Kartelean ezinbestekoa izango da honako hau agertzea: *Elgoibarko danborrada 2015. Maiatzaren 30ean, gaueko 23:30ean*. Lan guztiak Kultur Etxean aurkeztu beharko dira, 2015eko maiatzaren 5erako (13:00ak baino lehen), sinadurarik gabe. Sari bakarra egongo da, 300 eurokoa.

## **Hainbat ikastaro Kzgunean, astelehenetik aurrera**

Elgoibarko Kzgunean hainbat ikastaro eskainiko ditu datorren astelehenetik aurrera. Besteak beste, oinarriko Internet ikastaroa, sare sozialak, ofimatika eta GIMP ikastaroak eskainiko dituzte apirillean. Horrez gain, IT txartela eskuratzeko aukera ere egongo da. Ikastaroei buruzko informazioa eskuratzeko 943 023 640 telefonora edo [tutor.elgoibar@kzgunea.net](mailto:tutor.elgoibar@kzgunea.net) helbidera idatzi daiteke.



# UR BIZI, 25 URTE ARRRAINEN PARE

Lagun talde baten ekimenez sortu zen Urbizi urpekaritza taldea orain dela 25 urte. Urpekaritzarako zaletasuna zuten zortzi bat lagun bildu ziren, eta elkarre bat sortzea erabaki zuten, urpekaritzan aritu nahi zutenei erraztasunak eskaintzeko. Hasieran astakeria zirudien ekimen hark 25 urte beteko ditu aurten, eta bizi-bizi dirau gainera.

Ainhoa Andonegi

**B**arnealdeko herria da Elgoibar, baina itsasoa gertu dauka, eta lehorrekoak izan arren, betidanik izan dira herrian urpekaritza zaletak. Bakoitza bere aldetik ibiltzen zen hasieran, eta bakoitzak ahal zuen neurrian erantzuten zion urpean ibiltzeko zaletasun horri. Baina taldean

gauzak errazago direnez, Elgoibarko lagun talde batek urpekaritza taldea sortzea erabaki zuen 1990ean: Urbizi urpekaritza taldea. Jose Ignacio Ferreño izan zen taldearen sortzaileetako bat eta gogoan dauka taldea sortzeko zailtasunak izan zituztela, izan ere, euren urpean ibiltzea gustatzen zitzaizkien, baina talde bat sortzeko duen burokraziari buruz ezer gutxi zekiten. Hala ere, aurrera egitea erabaki zuten: "Gazteak ginen, urpekaritza izugarri gustatzen zitzaigun eta hori nahikoa

izan zen", esan du Ferreñok. Talde independentea sortu nahi zuten, autosufizientea, eta urpekaritzako lotutako tramitazio guztiak egiteko ahalmena izango zuena. Beste talde batzuekin elkarlanean jardungo zuten, baina urpekaritzaren munduan hasi eta sakondu nahi zutenei zerbitzu osoa eskaintzea nahi zuten. Urpekaritzaren Elgoibarko topagunea izan nahi zuten, euren zaletasunari buruz hitz egiteko gunea, iritziak eta esperientziak elkarbanatzeko gunea, materiala alokatzeko








eta urpekaritzan trebatzeko gunea. Helburuak argi zituzten, eta herrian baze- goen eskaria. Urpekaritzarako zaletasunak emandako indarrak batuta ekin zioten lanari.

Olaizaga kiroldegian utzi zien Udalak lokal bat, eta hantxe jarraitzen dute gaur egun ere. Zortzi bat laguneko koadrila horietako ki- deak izan ziren estreinako bazkideak, baina poliki-poliki herritar gehiago batu zitzaizkien. Bi urte behar izan zituen taldeak ofizialki sor- tzeke, baina ordurako 40tik gora ziren talde- an, eta 1994rako 59 bazkide zituen Urbizik. Elgoibarkoak gehienak, baina Debabarrena eskualdeko hainbat herritako bazkideak ere bazituzten, izan ere, Urbizi izan baitzen baila- rako lehenengo urpekaritza taldea. Gaur egun 40 bat lagun daude taldean. “Orain dela 25 urte taldea sortu zuten zoro haiei eskerrak eman behar dizkiegu”, esan du Jon Larrañaga Urbiziko bazki- deak.

Urpekaritza praktikatzeko beharrezkoa den materiala bazkideen eskura jartzea izan zen Urbiziren lehenengo lana. Batzuk bazeu-

katen euren materiala, baina hasiberrientza- ko aukera paregabea zen materiala alokatze- ko aukera izatea. Edozein kirol probatu nahi duenarentzat garrantzitsua da materiala es- kura izatea: “Urbizik oso merke eskaintzen du materiala, eta erraztasun handiak ematen dizkie urpekaritzan hasi nahi dutenei”, esan du Ferreñok.

## Gaur egun 40 bat bazkide ditu Urbizi urpekaritza taldeak



Materiala alokatzetik hasi ziren, baina haratago joan nahi zuten. Urpekaritza ez da kirol arrisku- tsua, eta gutxieneko osasun bal- dintzak betetzen dituen edonork prakti- katu dezake, baina ezagutza gutxi batzuk eskuratzea ezinbestekoa da, eta lizentziak atera behar dira. “Kirola ezagutaraztea ondo dago, baina ahal dela arriskuak ekidin behar

dira”. Urbiziko kideen bigarren pausoa horixe izan zen, ikastaroak eta urpekaritza lizentziak Elgoibarren eskaintzea. Taldea handitzeko eta sendotzeko baliagarria izango zela uste zuten, eta taldeko zazpi bat lagun trebatu zi- ren horretan. “Abantaila handia da herrian bertan titulazio ofizialak eskuratzeko aukera izatea, eta horrek taldeari prestigioa ematen dio”.

25 urte hauetan taldeak beste gorputz bat hartu du, sendotu egin da, espezializatu egin da, eta nolabait esateko teknikoagoa da. Urpekaritzak adar asko ditu, eta gehie- nok urpean arrainekin igerian egitearekin lot- zen badugu ere, urpekaritza hori baino as- koz gehiago dela azaldu du Ferreñok. “Urpe- ko hockey-a edo urpeko arku-tiraketa inda- rra hartzen ari dira azkenaldian, eta guk ho- rrelako ekimenak egiten ez ditugun arren, tal- deko norbaitek horretan hasi nahiko balu, la- guntza eskainiko genioke”. Urazpiko orienta- zioan, arrantzan edota argazkilaritzan treba- tzeko aukera ere badago.


25 urte egin ditu taldeak eta bizi-bizi da- go. Giro bikaina dute taldean, lagunak dira, elkarlanean oinarrituta dago Urbiziren jardua eta auzolanean egin dute lan. Ez dituzte epe luzerako helburuak jarri nahi, baina au- rrera jarraitzeko asmoa dute, ilusioz eta pau- soz-pauso bidea eginez.

### Edonorentzako kirola

Urpekaritzak dituen nolabaiteko uste edo mitoak argitu nahi dituzte Urbiziko ki- deek. Askok uste dute urpekaritza kirol arrisksua dela, baina beharrezko neurriak hartuta, kirol lasaia eta edonorentzako mo- dukoa dela nabarmendu dute Urbiziko ki- deek. “Badira gauzez joaten direnak, eta ho- rrek badauka bere arriskua, jakina, baina bestela, gutxieneko jakintza batzuk ezagu- tuta, ez dago arriskurik”, esan du Ferreñok. Hala ere, beti binaka joatea komeni dela azpimarratu du. Jende asko sekula proba- tu gabe zuzenean itsasoan sartzen da, eta Urbizikoen iritzi- z, hori da urpekaritzan egi- ten den akatsik larriena. “Materiala hartu eta zuzenean itsasora joaten dira asko, ur- pean ibiltzea zer den jakin gabe”. Une ho- riek benetan arrisksuak izan daitezke, eta horregatik gomendatzen dute Urbizikoek lehenengo monitore batekin probatzea. Gainera, ur azpian oxigeno botilekin ibiltze-



Udalak oroigarria eman dio Urbiziri, 25. urteurrenean. Ezkerretik eskumara: Jon Larrañaga, Ri- cardo Garate, Iñigo Barrenetxea, Jose Ignacio Ferreño eta Ramon Mujika. Arg. Aitor.



ko lizentzia ateratzea derrigorrezkoa da: “Ez da behar merkatuan dauden kurtso guztiak egitea, baina oinarriko pare bat lizentzia ateratzea ezinbestekoa da”, esan du Jon Larrañagak. Urpekaritza ez da zaila, eta gauzak ondo eginez edonorentzako moduko kirola da. “Urazpiko lasaitasunak izugarri baretzen zaitu. Ezin



da hitz egin, ez dago sakeleko telefonorik, eta hiru dimentsiotan mugitzen ikasten duzu, baina harrigarriena ur azpian arnasa hartu ahal izatea da; sentsazio hori deskribatzea zaila da”.

### Urpekaritza herritarrengana hurbiltzeko jardunaldiak

Urpekaritza praktikatzea gustuko zutelako sortu zuten Urbizi, baina orduetik etengabeko lana egin dute urpekaritza herritarrengana hurbiltzeko. Gutxi ba-

tzuen kirola da, eta askok uste dute garestia dela. Baina Urbiziri esker, urpekaritza probatzea doakoa da. “Guk izan ez genuen aukera eskaintzen diegu herritarrei, izan ere, kirol batean barneratzeko probatzea da garrantzitsuena”. Hortik aurrera norberak erabakiko du zenbat denbora eta zenbat diru eskaini nahi dion urpekaritzari, baina gutxienez ur azpian arnasa hartzea zen den probatzeko aukera hori doan eskaintzen du Urbizik. Martxo azken asteburuan egin zituzten aurtengo urpekaritza jardunaldiak, eta hitzaldi edota erakusketaz gain, urpekaritza bataioa ere egin zuten Olaizaga kiroldegian. Antolatzaileek esandakoaren arabera, aurtengo jardunaldietan jende gehiagok hartu du parte: 300 bat lagun izan ziren erakusketan, eta urpekaritza bataioan 25 lagunek hartu zuten parte. Jon Larrañaga oso pozik agertu da aurtengo jardunaldiak izan duen harrerarekin: “Guraso askok ez zekiten Urbizi existitzen zenik ere, eta mundu berri bat erakutsi diegu, eurentzat orain arte erabat ezezaguna zen mundu bat”. Balorazio positiboa egin dute, baikor dira, eta dagoeneko hasi dira datorren urteko programazioarekin pentsatzen.



## Erretratu zaharra



**1938**

Aste honetako erretratu zaharra Maria Dolores Etxeberriak ekarri du BARRENERA. 1938. urteko erretratua da, gerra garaikoa, eta Parapan baserrian aterata dago. Baserriko kanpoaldean batu zen familia, eta hantxe atera zuten argazkia. Gogora ditzagun zeintzuk diren familia horretako kideak:

**Atzean zutik:** Luis Etxeberria, Juan Etxeberria (†), Felix Etxeberria eta Inaxio Etxeberria. **Aurrean:** Jose Etxeberria (†), Jose Mari Etxeberria, Maria Dolores Etxeberria eta Maria Larrañaga (†).

## ERRETRATU ZAHARRAK BEHAR DITUGU!

BARRENE*n* argitaratzeko  
erretratu zaharrak  
baldin badituzu, eskertuko genizuke  
gure erredakziora ekartzea edo  
[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
helbidera bidaltzea  
Kalebarren Plaza 2  
943 744 112 (Ainhoa)

B

BARREN

**“Baloriak aldatu dira, baiña pikareskia beti izan da hemen”**

# MIREN ARRIETA

CARITAS-EKO SORTZAILEETAKO BAT

92 urte beteko ditu abuztuan Miren Arrietak, baiña oraintsu arte jardun dau Caritasen, erropak batu eta banatzen. Eziñak behartu zaban lagatzera, osterantzian segittuko leukiala dio. “Esaten gendun, ‘ezin leike holan eta holan laga gauzia’, baiña ez gendun kapazidaderik segitzeko. Ezin giñon segidu martxa hari”. Horrenbeste urtian makiña bat familixari lagundu die eta hórretzek betetzen ei du gehixen.

Ainara Argoitia

Caritas sortu zenduen taldekua zara. Oin sei bat urtera arte, gaiñera, boluntarixo lanian. Zelakuak izan ziran hasiera harek?

Amerikanuak esne-hautsa bidaltzen hasi ziranekua da nere lehenengo rekuerdia, gerra ostekua. Beste gauzaren bat ere bidaltzen zeben, baiña oin ez naiz akordatzen zer zan. Geruago, erabillittako erropa apurren bat ere hasi ziran bidaltzen, eta hórretzek partitzen hasi giñan gu parrokiyan. Estimazio haundixa izaten zaban erropiak, jendiak premiña

haundixa zaukalako. Parroko oso ona izan gendun sasoi haretan Elgoibarren: On Ramon Ormaetxea [Gerria amaittu gabe zeguan artian Ormaetxea etorri zanian]. Haretzek zuzendu gindduzen gu gauzak egitten hasteko. 14 urte-edo bagenduazen hónek gauzok egitten hasi giñanian, baiña haretzek piztu gindduzen. Bestela zer egingo genduan baguk, mundua zer zan ere ez bagenkixan! Haretzek esan zigun hemen bertan ere hasi geinkiala erropia batzen, eta hasi giñan. Zenbat ez ote

gendun guk ikasi On Ramonekin. *Circulos de estudios* ematen ziguzen.

#### **Zer izaten zan hori?**

Eskola modukua. Neska koskorrek giñan gu orduan, eta astero-astero juaten giñan ikastera, parrokixara. Gauza asko erakutsi ziguzen On Ramonek, eta ez bakarrik Elizako kontuetan. Historia, literatura eta kultura orokorreko gauzak ikasi genduzen harekin, eta etikia eta morala zer zan ere bai. Idazle ezagunen liburuak-eta irakurtzen ziguzen, munduan ziranik ere ez genkixazenenak. Oso estimau geunkan elgoibartarrek On Ramon. Juan zanian Udalak omenajia ere egin zion eta estazioraino jua zan jendia agurtzera. Neskak bakarrik ibilli giñan harekin, baiña. Mutillak On Jose Maria Agirrebalzategirengana juaten ziran.

#### **Eskolan ibilliko ziñan bestela ere, baiña, ala?**

12 bat urterekin laga naban eskolia. Jaixotzez elgoibartarra naiz, kalekua, baiña gure aitta treneko enplegaua zan eta Debara jua giñan bizitzera. 6 urte han bete nittuan nik, Deban, eta han hasi nitzan eskolan, baiña neguan, amamanera etortzen nitzanian, ospitalera juaten nitzan eskolara, karidadeko mojengana. Eskola nazionalian hasi nitzan ni Deban, eta maistriak oso maitte ninddun gaiñera. Beti neu abonatzen ibiltzen zan, baiña nere lagunak mojetan zebizen eta nik hara nahi. Asko pagau bihar zan orduan mojen eskolara juatia, baiña lortu naban azkenerako eta jua nitzan. Eta zera! Hara jua eta moja batek estu hartuta han euki ninddun, baiña ezin ezer egin. Neuk eskauta jua nitzala eta aguantau egin bihar!

#### **Egiguzu berba Caritas sortu zenduen koadrillari buruz. Zelan arreglatzen ziñaten?**

Joxe Zuazubizkar Akar zan gure jefe supremua, gizon eredugarria, eta haren bueltan koadrillatua batzen giñan gero, danak lagunak: Andresa eta Bizenta Ezenarro, Guada Mujika, Luisa Abascal, Nieves eta Lucia Gabilondo, neu eta beste batzuk. Erropia batzen gendun batez ere guk emakumiok, eta asko gaiñera, baiña bihar gendun beste edozer ere eskatzen gendun. Josteko makiñak ere dozena erdi bat lortu giñuzen eta idazteko-makiña bat ere bai, baiña diru-laguntzen arduria Joxek zeukan. Joxe zan horretan maisua. Dirua Elizan eskatzen zan hillero, eta horretarako sobriak egin eta partitzen jarduten gendun. Jende askok hartzen zeban parte.

**Boluntariuen lanak eusten dio hein handi baten oin ere Caritasi, baiña irudipena daukat zuek hasi zenduenetik hona beste gorputz bat hartu duala.**

Dudarik gabe. Oin antolatuago dago, baiña sobrien kontuekin jarraitzen dogu. Gabonetan egitten da kanpaiña hori, eta oin ere sobriak geuk egitten dittugu eskuz eta gero partidu eta batu.

**Gerra bueltan hasi ziñaten bestien alde lanian. Zeuenian ere izango zan ba faltia!**

Asko pasau gendun gerra denboran. Halaxe tokau jakun, baiña ez jata begittantzen kontatzekua danik ere. Aitta kartzelan izan gendun, eta sufriduko ez gendun ba! Ez giñan, baiña, bakarrak izan. Asko ikusi gendun, premiña ere haundixa zan, eta alkarri laguntzia derrigorrezkua zan. Hala erakutsi zigun guri On Ramonek bestienganako konpromisua hartzen.

#### **Zelan organizatzen ziñaten?**

Premiña bazeguan, bai, jendia itzel etortzen zan gurera eta. Parrokixiak San Bartolome kalia zeukan lokal batian sortu gendun Caritas eta hantxe sortu zeben Odol Emillien elkartia ere: San Bartolome kaleko bederatzigarrenian, bigarren pisuan. Beste aktibidaderen bat ere sortu zan lokal haretan. Erropia eta esne-hautsa hantxe batzen genduzen guk, eta handitxik banatu gero. Esnia ez jakon edozeiñi ematen. Lista bat geunkan eta baldintza batzuk bete bihar izaten ziran. Andresa Ezenarro zeukan haren arduria, Ezenarro almazenekuak. Umien izenian etortzen zan esne-hautsa eta lehenengotan eskoletan partitzen zeben, baiña gero gehixago bidaltzen hasi ziranian, etxietan partitzen hasi giñan. Alimentaziua ez zan punterengua izaten, eta umiei gitxienez esnia, badakizu! Gero, etxe haura laga eta Udalak San Roken emandako beste lokal batera jua giñan. Erroperua zan haura. Oin erropak batzeko kontenedoriak daude, baiña orduan ez, eta daneko erropia hartu eta hantxe bereizten gendun gero emateko moduan zeguana eta konpondu biharra zaukana. Ondo zeguana ondo-ondo tolestu eta apaletan jartzen gendun, morokildutako erropia iñork ez dabelako nahi. Adabakidun erropak, erabiltzeko ez ziranak, jostunei ematen giñon, ba-geunkan-eta jostun lanetarako jendia ere. Dana aprobetxatzen gendun, hori bai; besterik ez bazan, traputarako. Jende asko etortzen zan hara erropa billa, Eibartik-eta ere bai.

**Ez ziñaten Elgoibarrera mugatzen orduan.**

Elgoibarrerako izaten zan berez han batutakua, baiña premiña zeukalako eskian etortzen zana ezin ba bialdu etxera bertakua ez zalako! Danei ematen giñon guk. Pentsatzen gendun erropia eskatzera zetorrena biharra zeukalako zetorrela.

#### **Eta dana estimatzen zeben?**

Ez, baziran orduan ere kapritxosua. Behin ekarri zigun andra batek izara pare bat. Adabakixak bazittun, baiña erabiltzeko moduan zeren eta eman giñozen beste bati. Han etorri zan hurrengo protestan: 'Me diste una sábana recomendada', esan zidan, eta erantzun nion hasarre: 'Zure aurretik izara hori erabili dabana ez da zu baiño gitxago eta egon zaitte isillik mesedez. Nahi badezu hartu, eta bestela, laga hortxe beste batentzat'. Errietak-eta egitten genduzen orduan ere. Beste gizon gazte bat ere etorri jakun behin, ume jaixoberrixa zaukala eta laguntasun eske. Danetik bihar zeben harek eta hain zuzen ere bageunkan guk estreñiatu gabeko ume-erropia gordeta. Preparau gendun dana mutilla zetorrenarako, andria ez genduan sekula ezagutu-eta. Geure ilusio danarekin preparau genduzen kamisetatuak, eta eruan zittuan harek pozik. Handik gerotxuo etorri zan barriro ume-sillarik ba ete gendun galdezka. Ez geunkan orduan momentuan, baiña eskatu gendun eta ekarri ziguen bat. Preparau gendun haura ere eta eskaiñi giñonian mutillari berak ezetz, ez zebala berak erabillitako kotxe haura nahi. Danetarik esan giñon hari, halakueri edozer esateko eskubidia gendula pentsatzen gendun eta.

**Eta halakuei eman egitten ziñuen hurrenguan?**

Bai, ez giñon iñori gorrotorik. Momentuan entzuten zittuen epelak, baiña hurrengo etortzen ziranian, eman guk. Oin amorrua demasa ematen zeben halakuek. Erropia apurtu ahala bota egitten zeben askok,

**“Elgoibarrerako izaten zan batutakua, baiña premiña zeukalako etortzen zana ezin ba bialdu bertakua ez zalako!”**

eta ukatu ere egin giñuan iñoiz, baiña gitxitan.

**Basura ertzian ez zenduen ezer lagako orduan zuek?**

Ez, ez. Eta esango dizut beste kaso bat. Behin etorri jakun andra bat alfonbra eske. Juan nitzan kalera eta Plaza Txikiko basura onduan hantxe bi alfonbra batu-batu eginda. Hantxe egon nitzan begira-begira zelakuak izango ete ziran kalkulatzeko eta etxera orduko jua nitzan andra haren etxera tinbria jotzera. Esan nion juateko haraxe, baiña jua ez haura! Nik hari eraman banio alfonbra haura etxera, gustura hartuko zaban, baiña basura ondora billa jua baiño nahixago gabe gelditzia harek! Guria itzela zan gero. Zeozer ikusi orduko zeinek biharko ete zeban pentsatzen jartzen giñan gu.

**Caritas bera aldatu dala esan dozu, baiña jendiaren premiñak ere aldatuko ziran, ala?**

Bizimodu zahero aldatu da, eta premiñak ere diferentziak dira. Lehen, premiñia haundixagua zala esango neuke. Oñarrizkua falta zan orduan. Lehen, bost familixia zauden Elgoibarren egoera ekonomiko onian, eta beste danak haren azpittik gauden. Tarte haundixa zan orduan aberatsen eta gaiñerakuen artian. Aberatsak kontautakuak ziran hemen! Taller-jabiak eta izan dira, bai, baiña ezizu pentsau hórrek aberatsak ziranik. Arriskatu eta ahal zan moduan dirua egindakuak izan dira hórrek, gau eta egun lanian ibilli diranak. Gero tarte hori estutuz jua da, eta urte askuan antzeko ibilli gara danok, eta oin, barriz, barriro hasi da tartia zabaltzen. Oin, premiñia... gerra osteko premiñarik ez dago oin, ezta urrutittik ere. Oin ere jatekua falta dabenak falta dau, bai, eta estuasunak biziko dittu, baiña nik esango neuke lehen gitxiaagorekin bizi zala jendia. Konformidade gehixago ere bazeukan lehengo jendiak, biharbada beste erremediorik ez zagualako, baiña, gitxi horrekin zoriontsuaguak giñan. Oin, hori bai, konformia izatia errazagua ere bazan orduan, baloriak ere beste batzuk ziralako. Ez dira konparatzekuak, ez. Akordatzen naiz Caritasera etortzen ziranek zelako poza hartzen zeben erropa barrixa jasotzen zebenian. Geuk ere poz demasa hartzen gendun estrenau bako erropia ematen gendunian. Erropa hórrek aparte gordetzen genduzen armarixuan ere, ezkutuan, eta geure ustetan erropia ondo zaintzen zebenei ematen giñon gero. Konfesau biharko degu geuk ere izaten genduzela santu hartutakuak.

**Ezagunak eta abar?**  
Ezagunak ez, baiña batzuei ematen giñon erropa kuriosua, eta zera, hurrengo egunian han ikusten genduzen erropia zapalduta bezalaxe jantzita zebela, eta horrek amorrarazi egitten ginduzen. Norberak emandako erropia zaintzen zebela ikustiak ematen zaban poza. Hare beste beste batekin ematen giñon erropia.

**Izango dezu ba zuk kontatzeko moduko anekdotarik ere, ala?**  
Batzuk bai. Batenbat hiltzen zanian hantxe ekartzen ziguen hildakua erropia, barri-barri. Erropa ona izaten zan; hil dalako pertsona haren erropiak ez dau balixo, ala? Geuk jakin ezkerro gaixo contagiosua zeukala hartu ere ez gendun egingo! Egunduan batian ekarri ziguen halaxe hildako gizonezko baten erropia, barri-barrixa, eta laga gendun hantxe, partitzeko. Etorri jakun halako batian andra bat gizonantzako praka eskian eta Nieves eta bixok zaku hartakotxiak eman! Nahi gabe aittatu

**“Eskatzera etorri aurretik geu ere jua izan gara eskeintzera, jakiten gendun-eta zeinek zaukan premiña”**

gendun, baiña, alargun batek ekarritakuak ziralako eta nahi ez eskian etorritako harek! *‘Ni pensar’*, halaxe esan zigun. Guk orduan praka beste zaku batetik hartzen gendun plantia egin eta eman giñozen hartexek. Jakin egin bihar izaten zan pixkat zelau toreau jendia. Guri ere egitten ziguezten, baiña e!

**Jasotzera zetozenek?**

Bixetakuek. Behin ekarri zigun andra batek erropa barri-barrixa eta esan ere esan zigun edozeiñi ez emateko, bere amaren soiñekua zala-eta, estrenau gabia. Ondo janzen zan andria zan bera. Baiña soiñeko haura ikusi ere ez gendun egin guk! Gu akordau giñanerako desagertu zan! Eta halakuak asko egitten ziguezten. Euren pentsatzen zeben ez genduzela ikusten, baiña ikusten genduzen guk. Baiña ikusita ere, zer egingo ziñuen ba hárei! Baloriak aldatu dirala esan dot lehen, baiña pikareskia beti esistidu da hemen. Beste bat etortzen zan, eta atian egoten zan, *al tanto. Eso para mí*, esaten zigun, ondo jantzitako batek zeozer zekarrenian.

**Erropiaz aparte, beste zer jasotzen zenduen?**

Ohiak eta muebliak ere batzen genduzen. Baita ontzixak ere. Zeozer konkretua bihar zanian eskatu egitten gendun guk, lotsarik gabe. BARRAREN eta Diarixuan ere jarri izan gendun anuntziua. Behin eskola profesionalian eskeiñi ziguezten mueble barrixak. Bihar ete genittun galde-

tu ziguen. Barri-barriak ziran, eta bai horixe! Berrixak ziranian begiratu ere ez giñon egitten zurixak ziran ala baltzak ziran. Barrixak baziran, ezta pentsau ere lagatzia! Halakuetan handittik mobitzen genittun zuzenian etxietara, guk ez geunkan traste askorentzako lekurik eta. Dana dan, neure etxeko sarreriak ere almazen itxura haundixa izaten zeban sarri.

**Askotan premiñan daganari kosta egitten ei joko laguntzia eskatzia. Zuek herrixan jarduten zenduen. Igarri zenduen halakorik?**

Bai horixe. Sekretuan jarduten gendun geuk

ere. Gerran modukuak gara: batzuek errazegi eskatzen debe, eta beste batzuek, premiñia haundixa izan arren, eskatu ezinda ibiltzen dira. Kanpoko jendia etortzen zan asko guregana. Hemengo jendiarekin geu ere kontu gehixagorekin ibiltzen giñan. Eskatzera etorri aurretik geu ere jua izan gara eskeintzera, jakiten gendun-eta zeinek zeukan premiñia. Igual esango dezu diferentziak egitten genduzela, eta bai, pixkat bai, baiña guk pentsatzen gendun lehengo hemenguak ziralako, eta halaxe, gauza onen bat geunkarian hemengoren batentzat gordetzen gendun.

**Eta zer estrategia erabiltzen zenduen lotsagatik etortzen ez jatzuezen hórrengana juateko?**

Disimuluan juaten giñan. “Kalian topo egin gendun plantia egin eta esaten giñon: ‘Zu, aurrekuan zeurekin akordau nitzan. Ekarri ziguezten izara batzuk... eta oin, badakizu, oin izarak-eta ez daude sobran iñun eta ez dizue faltarik egitten?’”. Horixe izaten zan estrategia. Eta hárek ez genduzen eskeko beste danak etortzen ziran egunian ekartzen gurera. Beste egunduan batian juaten giñan, aparte.

**Laguntzia kosta egitten jakula esaten da, eskuzabaltasuna krisixan dalguala.**

Ez, ez. Guri jende on asko tokau jaku parian. Askok eskatu gendun guk eta batu ere bai. Jendia pentsatzen doguna baiño eskuzabalagua da.

Behin andra batek esan zigun bere alabari komeni jakola eskribitzeko makiña bat errezibutako egiteko, eta galdetu gendun geure billeran ia geure artekuen gizonen tallarretan-edo ba ete zeuken. Eskatu eta barri-barrixa lortu gendun, gaiñera. Etxeraiño ekarri zidan eman zuanak. Nik ez nion momento haretan begiratu ere egin makiñari, baiña nere gertuko bat konturatu zan segittuan barri-barrixa zala, prezintua ere kendu gabe zeukalako artian. Nik badakit haura zeñek pagau zeban, baiña iñori ez diot esan. Jende eskuzabala beti izan da, eta badago oiñdiok ere. Gauza txarra kontatzen da beti pertsonena, baiña jende on asko dago; asko!

**Oso kritikatu izan dan erakundia ere bada Caritas. Zuen ere entzuten zenduezen?**

Kritikak? Askok, takian-takian. Baiña azkenerako ohittu ere egiten zara. Bihar ez zebanari ematen giñola esaten zeben, eta guk esaten giñon etortzen zan danari ematen giñola guk erropia. Eta ez zan gizurra e! Guk ez gendun pentsatzen engaiñatzen ibiltzen zanik jendia. Ibiltzen ziran batzuk halakotan ere, danerako dagualako jendia, bai lehen eta baita oin ere, baiña guk pentsatzen gendun beste iñor engaiñatzen ibiltzia euren-tzakozala kalte.

**Gaur egunian Caritasen harreman estua dauka Udaleko Ongizate Saillarekin. Orduan ere bai?**

Guk geuk ez. Joxek izango zeban, baiña guk ez, txakur haundirik ere ez gendun erabiltzen eta. Zeiñi lagundu bihar jakon diruz, zeñi ez... horren arduria Joxek zaukan. Gaur besteko katerik ez zan izango biharbada, baiña Joxek beti euki dau harremana Udalarekin, bere neurrixan. Gure lana egitteko modua ziharo diferentia zan gaur egunekuakin konparatuta. Oin beste estruktura bat dauka Caritasen eta harreman haundixagua izaten debe Ongizate Saillarekin-eta. Oingo boluntarixuek formazio haundixagua dauke. Guk ez geunkan halakorik. Guk ahal zana egiten gendun. Egiten genduaz batzarrak eta abar, baiña herrixan. Geure airera ibiltzen giñan orduan, iñork ez zigun agintzen. Allegatzen giñan lekura allegatzen giñan eta laguntzen ari giñalako pozik!

**Zer eman dizu zuri Caritasen?**

Satisfazio haundixa. Estuasunak ere pasatzen genduzen, baiña bestelakuak gehixago ziran. Oin, behin horregaitio, etorri jakun portuges bat eta jarri giñduzen dar-dar danok. Azken-azkenian etortzen zan beti, mozkor-mozkor eginda, eta gauza berrixak nahi izaten zittuan beti. Danentzako ez zeguan, baiña. Etorri zan orduan ere, galtzetin eskian, baiña ordurako emanda genittun barrixak eta eman giñozen erabillitako batzuk. Eta han hasi jakun maldizioka! Hiruron artian atera gendun kanpora eta itxi gendun atia. Ez dot akordau ere egin nahi zer bilddur pasau gendun egun haretan. Atia jo eta jo euki gendun hantxe luzaro, itxuraz bere poltsia laga zebalako barruan, baiña halako batian konturau giñan gu! Ikusi gendunian poltsia han zeguala barruan, zabaldu gendun atia eta bota giñon aguro kanpora. Harek esan ziguzen gauzak guri...

**Parroki bueltan danian ibilli ei zara saltsan. Halaxe esan digue.**

Saltsa guztietako perejila izan naiz ni. Danari kolpe egiten giñon. Orduan parrokuak esaten zabana bete egiten gendun guk. Oso esanekuak giñan. Koruan ez beste danian ibilli naiz. On Ramonekin jua giñan behin ensaiora, onak eta txarrak apartatzeko-edo, baiña ni lotsatu nitzan eta gehixago jua ez! Sasoi haretan emakumiek eta gizonak ez zeben alkarrekin kantatzen. Gizonak koruan kantatzen zeben, euren zuzendarixarekin, eta emakumiek, On Ramonekin ensaiauta, behian. Behin Inazio Bereziartua zan danak elkartzia onartu zaban eta danek koruan kantatzia, eta zer pasau zan? Ba gizon batzuk korua laga zebela.

## “BETI DANEI ONDO EGITTEN IBILLI DA”

**Joxe Zuazubizkar aittatu dozu behin eta barriro elkarriketan zihar. Gaur bertan hil da [marxoaren 16a]. Zer daukazu esateko hari buruz?**



**Joxe Zuazubizkar**  
2015eko marxoaren 16an hil zen,  
92 urterekin

Benetako gizona izan dala. Edozer esan zeinkixon tran-kil Joxeri eta harek beti emango zizun bere erantzuna, berak irizten ziona, baiña egixa beti. Beti zagan laguntzeko prest. Beste edozeiñek egingo ete zittuan

harek egin dittuanak! Langillia zan oso. Berak tallarra zeukan hantxe, parrokiara onduan, eta Caritasen ofiziñia tallarran bertan zeukala esaten giñon guk, jendia hara juatan jakon-eta. Parrokiara lanetan azken-azkenera arte jardun dau. Lanerako beti egoten zan prest. Sekula ez zaban arpegi txar bat jarri, gaiñera. Hori be haundixa da gero, e! Guk errietan ere egiten gendun, baiña harek hori ere ez. Beti daneri ondo egiten ibilli da.

Kontauko dizut kontu bat ikusi daixan jendiak zenbat lan egin daben Josek Elgoibarren, iñori jakiñarazten ibilli gabe. Egun batian etorri jatan gizon bat eta galdetu zidan ia ez geunkan amistarik-edo umeren bat hartuko leukianik etxian. Esan zidan tallarran bazeukala bihargin bat hiru ume zittuana, haretako bi ezinduak, eta berak ezin ziola gehixago lagundu. Danera eskribidu zebala, baiña inundi ez zebala aurrerabiderik lortu. Aittatu nion Joxeri eta segittuan dihar egin zion Maribeli, Donostiako Caritasen arduradunari. Halaxe, gizon harek preparatutako papel danak hartu, eta bixamonian Maribelengana juteko esan zidan Joxek. Andra-gizon batzuk egin ziran ume haretako baten kargu.

**Adopzioan hartu zeben?**

Ez, ez, adopzioan ez. Ezinduazako zentro batian ingresau zeben umia eta andra-gizon harek egin ziran gastuen kargu. Caritasen bittartez lortu zan haura ere. Oin ere ume haren gurasuak zenbat bidar eskertzen didaten egindakua. Jendia esker onekua da jeneralian, bai.

**Diru kontuen arduria eraman dau urte askuan Joxek Caritasen. Lehen ere aittatu dozu esker txarreko lana zala.**

Bai, eta kritika kontuak ere aittatu dittugu. Joxe batek zenbat entzun ete zittun! Iñork aittatzen al dau, baiña, zer lan egin daben harek? Jaungoikuak bakarrik daki zer lan egin daben Joxek Elgoibarren eta zenbat kritika entzun bihar izan dittun isil-isilik! Parrokiara harek beste lagundu dabenik ez da izango Elgoibarren. Jendiak jardun egiten dau, baiña, errezege. Jakin gabe ere bai askok! Joxek harreman estua zeukan Donostiako Caritasen arduradunekin eta baillarakuakin eta zaintzen zittun hórrek kontuok. Eta gaur egunian zer esanik ere ez. Baremo batzuk daude eta edozeiñi ez jako ematen gero! Erropiana beste kontu bat zan. Gu geure kabuz ibiltzen giñan.

## 168.000 euroko diru-laguntza emango dio Elgoibarko Udalak Elgoibarko Izarrari

Elkarteak eta Udalak hitzartutako egitasmoen %37,64 finantzatzen du Elgoibarko Udalak

**E**lgoibarko Udalak 168.000 euroko diru-laguntza emango dio Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneari 2015erako, hainbat proiektu eta egitasmo finantzatzeko; iaz baino 16.800 euro gehiago, hain zuzen ere. Aurten ere, bi udal sailetatik bideratuko da diru-laguntza hori: Euskara Batzordetik 108.000 euro jasoko ditu elkarteak, eta Gazteria Batzordetik, berriz, 60.000 euro. Elgoibarko Izarrak Elgoibarko Udalarekin hitzartutako egitasmoen aurrekontua 446.306,75 eurokoa da, eta Udalak emandako diru-laguntza aurrekontu horren %37,64 da. Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eskerrak eman dizkio Elgoibarko Udalari, eskaintzen dion laguntzarengatik. Udalaren laguntza ezinbestekoa da Elgoibarko Izarraren proiektuak gauzatzeko, eta, aurrerantzean ere, bide beretik segitzeko asmoa azaldu dute elkarteko arduradunek. Izan ere, Elgoibarko Izarraren ustez, "ezinbestekoa" da administrazioaren eta herri ekimenaren arteko elkarlana, haur eta gaztetxoek aisia hezitzailea indartu, eta euskara eta euskal kultura gure herrian sustatzeko.



### Euskara Batzordeak: 108.000 euro

- Hedabideak: 57.600 euro (BARREN eta *barren.eus*)
- Aisia erabilera: 39.600 euro (Kiribilduz, Gurean Bai, nerabeak eta motibazioa, Beinke bertso eskola, Tertuliak egitasmoa).
- Bestelakoak: 10.800 euro (Eguberrietako bertso jaialdia, Euskaren Nazioarteko Eguna, Ikastolen jaietarako autobusak, udazkeneko kultur ekintzak, Ahotsak egitasmoa).

### Gazteria Batzordeak: 60.000 euro

- Atxutxiamaiak: 60.000 euro
- Plazako ekintzak: Atxutxiantxitxika, udazken festa, San Fermin txiki.
- Udaberriko eskaintza: txokoak, irteerak, Zarautzen egonaldia.
- 'Daixola' egitasmoa.
- Udako eskaintza: udako txokoak, egonaldia Irañetan.
- Jostailuen erakusketa.
- Neguko eskaintza: txokoak, irteerak, tailerrak...
- Olentzero eta Mari Domingiren kalejira.

## 'Euskarak 365 egun' ekimena prestatzeko lehen batzarra apirilaren 15ean



Euskararen Nazioarteko Egunaren harira, Euskarak 365 egun ekimena antolatzen ari dira herriko hainbat eragile, abendurako. Aurten go ekimena "berezia" izango dela aurreratu dute antolatzaileek, eta horregatik, prestaketa lanak inoiz baino lehenago hasiko dituzte. Datorren astean, hilaren 15ean, egingo dute lehenengo bilera, 18:00etatik aurrera, Kultur Etxeko sotoan. Euskaraz bizi nahi duten elgoibartar guztiak daude batzarrera gonbidatuta; bai elkarte-erakundeak eta baita norbanakoak ere. 'Euskarak 365 Egun' ekimena prestatzen duen gaur egungo Talde Eragilea 10 elkarte-erakundek osatzen dute, baina taldeko kideek uste dute jende gehiagoren parte-hartzearekin aberatsagoa izango dela abenduan egingo duten aldarrikapen-jaiak. Bilera agertu ezin, baina antolakuntzan parte hartu nahi dutenentzako helbide elektronikoa bat jarri dute: [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus).



# Maite Maiora, Montse Vazquez, Alfredo Gil, Raul Garcia Castan, Iker Oliveri, eta itzal handiko beste hainbat Mendaron izango dira

Domekan jokatu da Mendaroko Kilimon Trail mendiko lasterketa

**A**lfredo Gil, Raul Garcia Castan, Ismail Razga, Iker Oliveri, Ivan Ramirez, Manuel Sanchez Capitan, Abderrahim el Qayed, Igon Manzidor, Ander Barrenetxea, Vitorin Fernandez, Maite Maiora, Montse Vazquez, Uxoia Irigoien eta beste izen handiko hainbat lasterkari Mendaroko Kilimon Trail mendi lasterketan izango dira etzi, azken orduko eragozpenik ezean. Kartelbururako nabarmendu dituzten korrikalariak dira horiek, baina tropela askoz gehiagok osatuko dute, lerro hauek idazterako 256 korrikalari zeudelako izena emanda. Baja garrantzitsu bi ere izango dira, hala ere, igandean, David Garcia *Txiki* eta Imanol Goñi, min hartuta daudelako. Gaur bukatzen da berez Internetez izena emateko epea ([www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com)), baina antolatzaileek jarritako 350 laguneko kopurua gainditu ezean, egunean bertan ere egongo da horretarako aukera, 8:30etik 9:30era, plazan.

Mendaroko Txirindulari Elkarteak antolatu du lasterketa, Lizarpe Mendi Klubaren babesarekin, eta aurtengoa bosgarren edizioa du. Perfil zorrotzeko lasterketa da, 23 kilometro pasatxokoa eta 1.600 metroko desnibel positibokoa —Ibilbidea marka fijoekin seinaleztatuta dago urte osoan—. 10:00etan abiatuko dira lasterkariak Herriko enparantzatik eta iazko ibilbide bera egingo dute, baina aurren, berrikuntza modura, kronoigoera bat izango da, hamazazpigarren kilometroan: Gaintxipixatik Lizarpera nork azkarrago igo neurtuko dute antolatzaileek —400 metroko igoera da, 100 metroko desnibelarekin—, eta irabazleak sari berezia jasoko du, Mendaroko produktuez osatutako otxarra. Sariak ere handitu dituzte iaztik hona. Irabazleak garaikurra eta 400 euro jasoko dirutan, bigarren sailkatuak garaikurra eta 250 euro eta hirugarrenak garaikurra 150 euro —emakumezkoetan zein gizonezkoetan—. Errekorra onutzen duenak 200 euroko gainsaria eramango du. Bukaeran opariak zozkatuko dituzte parte hartzaile guztien artean eta baita Podoaktivak oparitutako oinatzen eta barne-zoilen bi ikerketa ere. Esatari lanetan, berriz, Euskadi Irratian ibilitako Aitor Elduaien kazetariak jardungo du.



*Raul Garcia Castan  
(Segovia, 1970)*

- Bost aldiz Espainiako Txapeldun izandakoa
- Munduko Kopako txapeldunordea (2007)
- Europako txapelduna (2009)
- Espainiako bertikalen txapelketako txapeldunordea (2012-2013)



*Alfredo Gil  
(Bejar, 1980)*

- Espainiako txapelduna (2013 eta 2014), eta 2013an zazpigarrena Europako txapelketan.
- Zazpigarrena Zegama-Aizkorri txapelketan (2014). 4:03:58ko denbora egin zuen Zegama-Aizkorri maratoian (3.58:38koa egin zuen lehenengo sailkatuak, Kilian Jornetek).



*Abderrahim el Qayed  
(Tadafat, Maroko, 1988)*

- Zortzigarren Congosteko maratoian, Espainiako Kopan (2014)
- Bigarren Lakuntzako mendi lasterketan, Euskadiko Kopan (2014)
- Euskadiko txapelketako laugarrena (2015)



*Maite Maiora  
(Mendaro, 1980)*

- Munduko Kopako txapeldunordea (2014)
- Limone Extreme munduko kopako finaleko irabazlea (2014), eta Transvulcania probako txapeldunorde.
- Espainiako Kopako txapelduna (2014)
- Zegama-Aizkorriko maratoian hirugarren, 4:52 denborarekin (2014)
- Mendi lasterketetako Euskadiko txapelduna (2014, 2015)



*Montse Vazquez  
(Lugo, Galiza, 1973)*

- Euskadiko bertikalen txapelketako txapelduna (2014, 2015)
- Mendi lasterketetako Euskadiko txapeldunordea (2015)
- Lau aldiz Espainiako txapelduna, taldekakoan
- KostraTraileko irabazlea hiru alditan



*David Lopez Castan  
(Segovia, 1985)*

- Hirugarrena mendiko lasterketetako Espainiako txapelketetan (2013, 2014)
- Mendi lasterketen Espainiako Kopan laugarrena (2014)
- Munduko txapelduna Espainiako selekzioarekin eta hirugarrena bakarkakoan (2012)

## Mendi lasterketen Euskal Herriko txapelketa irabazi du Maite Maiorak

Ibilbide motzean Loren Galeano elgoibartarra izan zen helmugaratzen lehenengoa

Urrietako mendi lasterketa irabazita, mendi lasterketen Euskal Herriko Txapelketa irabazi du Maite Maiorak. 518 korrikalarik hartu zuten parte Urrietako mendi lasterketaren laugarren edizioan. Xoxoka auzoan hasi eta Adarra menditik (811 metro) igaro behar zuten korrikalariek, 21,6 kilometroko luzera eta 1.568 metroko desnibel positiboa zuen ibilbidea osatzeko. Proba luzean Aritz Egea eta Maite Maiora izan ziren azkarrenak, eta honenbestez, Euskal Herriko Mendi Lasterketen Txapelketa irabazi zuten. Antxitxikari mendaroarrek batera igo ziren podiumera Montse Vazquez eta Virginia Perez, bigarren eta hirugarren sailkatuak, hurrenez hurren.

Ibilbide motzagoa ere bazuen probak, 11 kilometrokoa. Bateko zein besteko parte hartzaileek ibilbide lokaztuari aurre egin behar izan zioten. Ibilbide motzean Loren Galeano elgoibartarra gailendu zen, Aitor Insausti eta Aitor Arañaren aurretik.

Mendaroko Lizarpe mendi klubeko zazpi ordezkari hartu zuten parte Urrietako proban, bostek luzean eta bik motzean.



Arg.: FOTOIOSU

## Felix Morquechok irabazi du Mugertza Kroseko argazki lehiaketa



Felix Morquecho argazkilaria eibartarrak irabazi du Mintxeta atletismo taldeak antolatutako argazki lehiaketa, Polat Kemboi Arikan aurtengo kroseko bigarren sailkatuari ateratako argazki batekin. Argazkiaren "enfokea", eta "lerrokadura" nabarmendu dituzte antolatzaileek, eta baita transmititzen dituen sentimenduak ere. 200 euroko saria jaso du Morquechok. Vicente Guinea argazkilaria elgoibartarrak aurkeztutako argazki batek lortu du bigarren saria (100 euro), eta herritarren saria, beriz, Miguel Castrok eskuratu du, 300 botorekin. 40 argazki aurkeztu ziren lehiaketara, eta otsailaren 12tik aurrera, hilabetez, egon ziren ikusgai Tantaka tabernako pareta eta zutoinetatik zintzilik.

## Datorren astean hasiko da 60 urtetik gorakoentzako kirol jarduera

Adinekoen artean kirola egiteko ohitura sustatzeko asmoz, 60 urtetik gorakoentzako kirol programa jarri zuten martxan, elkarlanean, Elgoibarko Udaleko Ongizate Sailak eta Udal Kirol Patronatuak. Neguko geldialdiaren ostean, apirilaren 14tik aurrera izango du segida egitasmoak. Mintxetan izango dira saioak, martitzenetan eta eguenetan, 10:00etan hasita. Interesatuak Olaizaga kiroldegian eta Mintxetan jaso dezakete informazio gehiago. Bizimodu osasuntsua eta aktiboagoa izateko hainbat aholku eta ariketaren berri emango dute 60+ izeneko egitasmoan. Aurtengo ekinaldia berrikuntzekin dator, gainera. Unai Arrieta psikologoak jarduera intelektuala sustatzeko eta gainbehera kognitiboa prebenitzeko egitasmo personalizatuetatik sortzen irakatsiko die parte hartzaileei, apirilaren 14tik 18ra.

# Bosgarren postuan amaitu du Liga Lauko senior nesken taldeak

Ainhoa Usobiagak eta Lara Urainek eskubaloia laga dute



Zilarrezko Ohorezko Mailako liga amaitu da, eta Elgoibarko Lauko senior nesken taldeak bosgarren lekuan amaitu du. Zilarrezko Ohorezko mailan jokatu duen bigarren denboraldian, beraz, sailkapenaren erdi-erdian amaitu du Laukok, iaz baino postu bat gorago, alegia. Lau talde nabarmendu dira denboraldi honetan: Logroño Sporting La Rioja (33 puntu), Aiala Zarautz (32 puntu), Beti-Onak (27 puntu) eta Kukulaga Etxebarri (26 puntu). Horien atzetik sailkatu da Lauko, bosgarren postuan, 18 puntu eskuratuta. Bederatzi partida irabazi dituzte elgoibartarrek eta beste horrenbeste galdu.

Laukok Kantabriako Camargo taldea hartu zuen etxean ligako azken jardunaldian, eta kantabiarrek gol bateko aldeaz (21-22) lortu zuten garaipena. Emozioa, baina, partida amaitu ostean iritsi zen Olaizagara, Sanloko bi jokalaria beteranorentzako azken partida izan baitzen. Ainhoa Usobiagak eta Lara Urainek eskubaloia lagatzea erabaki dute. Hamahiru denboraldi egin ditu Usobiagak Sanlo kirol taldean, eta hamabi denboraldi Urainek. Oroigarri bana eman eta egindako lana eskertu zien klubak.

Liga txapelketa bukatu den arren, Gipuzkoako Kopa jokatu du Laukok denboraldi honetan, eta iaz lortutako titulua defendatzeko aukera izango du.

## Enduro moto lasterketa antolatu dute domekarako

Elgoibarko Enduro moto lasterketa antolatu du Urnabitza motoklubak domekarako. Mintxetako parkinetik abiatuko dira gidariak, bertan egongo baita 'paddock'-a, eta 30 bat kilometroko ibilbidea egin beharko dute partaideek Mintxeta inguruko berdeguneetan. Euskal Herriko eta Espainiako 110 bat motozalek hartuko dute parte. Proba hau Gipuzkoako, Euskal Herriko eta Kantabriako Enduro Txapelketetarako puntuagarria izango da. 9:30ean hasiko da, eta 14:30 ingururako amaituko da. Bost bat urteko etenaren ostean, 2013an berreskuratu zuen Urnabitza taldeak Elgoibarko Enduro lasterketa.

## EMAITZAK

### FUTBOLA

Haundi 0 – Aurrera 1 (Pref.)

Elgoibar 4 – Oiartzun 2 (Erreg.)

Burumendi 0 – Elgoibar 0 (Jub.)

Elgoibar 2 – Ilintxa 1 (Kad. A.)

Elgoibar 3 – Sorralize 0 (Kad. B.)

Elgoibar 1 – Urnieta 3 (Lehen. inf.)

Ilintxa 3 – Elgoibar 1 (Aleb.)

Elgoibar 3 – Urki 2 (Aleb.)

### ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 5 – Pinseque 4 (2B)

### ESKUBALOIA

Lauko Elg. 21 – Camargo 22 (Sen. nesk.)

Anaitasuna 30 – Alcorta 18 (Sen. mut.)

Gabaz Elg. 25 – Urola 28 (Sen. mut.)

Legazpi 23 – Astigarraga Elg. 32 (Jub. nesk.)

Pulpo 8 – Ikus Elg. 26 (Inf. nesk.)

Bidasoa 29 – Txariduna Elg. 22 (Inf. mut.)

Pulpo 22 – Murgil Elg. 20 (Inf. mut.)

## AGENDA

### FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 11

10:00 Elgoibar – Aretxabaleta (Inf. Txiki)

### ESKUBALOIA (Kiroldegian)

Domeka, 12

12:00 Alkorta Elg. – Ereintza (Sen. mut.)

## Morkaiko Eguna maiatzaren 16an

Maiatzaren 16rako antolatu dute Morkaiko Eguna, eta azken urteotako ohiturari jarraituz, helduentzako eta txikienentzako egitaraua prestatu dute. Batetik, Elgoibarko Mendi Itzulia egongo da aukeran. Goizeko 6:00etan irtengo dira mendizaleak Kalegoen plazatik, eta 38 kilometroko ibilbidea egin beharko dute Elgoibar inguruko mendietan. Era berean, etxe-ko txikienek Elgoibarko Itzultxoia egiteko aukera izango dute, 9:00etan Kalegoen plazan hasita edota 10:00etan San Pedron. Azkenik, Finalista Eguneko dominak ere banatuko dituzte egun horretan, 13:30etik aurrera. Ume bakoitzak egin dituen mendien zerrendak Morkaikoren bulegoen aurkeztu behar dira apirilaren 23rako. Informazio gehiagorako [www.morkaiko.net](http://www.morkaiko.net) helbidean kontsultatu daiteke.

LANA

ESKAERA

- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko, edo garbiketa lanak egiteko. ☎ 680 808 125
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko. Orduka edo egun osoz. ☎ 638 338 816
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko, edo garbiketa lanetarako. ☎ 686 265 293
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko, garbiketa lanetarako edo sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko. ☎ 636 882 838
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanetarako. ☎ 631 738 048
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Orduka zein interna. ☎ 635 189 294
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zein umeak zaintzeko. ☎ 636 976 515
- Emakumea eskaintzen da adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka nahiz interna. Premia handia. ☎ 631 790 555
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. ☎ 654 304 337
- Emakume arduratsua eskaintzen da etxeko lanetarako, eta umeak zein nagusiak zaintzeko. ☎ 695 708 379
- Gizona eskaintzen da zerbitzari lanetarako edo adinekoak zaintzeko. Mekanika eta mantenu alorrean ere esperientziaduna. ☎ 661 064 027

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, zein sukaldari laguntzaile lanetarako. ☎ 677 259 560
- Emakumea edozein lan egiteko prest. ☎ 626 580 592
- Emakumea adinekoak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. ☎ 631 651 098
- 30 urteko neska euskalduna umeak zaintzeko, zerbitzari lanetarako, garbiketarako egiteko... prest. ☎ 651 544 858 (Ei)
- Emakumea eskaintzen da adinekoak edo umeak zaintzeko. Interna. ☎ 631 697 238
- Neska arduratsua eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, zein garbiketa lanetarako. Orduka edo gauzez. Erreferentzia onak. ☎ 631 343 232
- Neska arduratsua eskaintzen da pertsona nagusiak zaintzeko, interna edo orduka. ☎ 631 124 942
- Emakumea garbiketarako egin edo adinekoak zaintzeko prest. Orduka edo interna. ☎ 603 740 755
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, interna. ☎ 639 523 390
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest, interna edo orduka. Erreferentzia onak. Paperak legez. ☎ 631 681 516
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko. Orduka, asteburuetan ere. ☎ 638 338 816
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. ☎ 680 808 125

- Emakumea nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 628 738 472
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. ☎ 943 748 899 / 685 724 861
- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientziarekin. Ordu-tegi malgua. ☎ 675 392 772
- Emakumea eskaintzen da umeak zein nagusiak zaintzeko. ☎ 634 278 902
- Emakumea eskaintzen da, umeak zein nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanetarako. ☎ 688 825 514
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko edo sukaldari laguntzaile lanetarako. ☎ 606 354 982
- Gizonezkoa lan bila. Umeen logelak apaintzeko era guztietako marrazkiak egiten ditut. ☎ 632 970 524
- Emakumea eskaintzen da garbiketa lanak egiteko. ☎ 639 423 493
- Emakumea eskaintzen da, umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Interna ere bai. ☎ 622 131 664
- Emakumea umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketarako egiteko prest. ☎ 631 834 241
- Emakumea eskaintzen da, umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. ☎ 631 448 980
- Emakumea eskaintzen da, umeak zein nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako. Interna edo orduka. ☎ 602 846 244

ETXEBIZITZAK

- Hiru logelako pisua alokatzen da Santo Domingo de la Calzadan (Grupo San Ignacio- Casa Verde) udarako edo 2015-2016 ikasturterako. ☎ 645 716 847 (Fosi)
- Bi logelako etxea hartuko nuke alokairuan. 500 euro ordainduko nituzke gehiezez. ☎ 661 064 027
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 606 354 982
- Bi logelako pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 661 064 027
- Pisua hartuko nuke alokairuan. Logela bat edo bi. ☎ 677 259 560
- Duplex bat salgai Elgoibarren. Eguzkitsua eta bistekin. 150.000 euro. Negoziagarria. ☎ 660 055 692

OSPAKIZUNAK

- Elgoibarren 1960an jaiotakoekin kinto bazkaria antolatu dugu. Ekainaren 6an izango da Txariduna jatetxean. Parte hartu nahi duenak 60 euro sartu behar ditu, Laboral Kutxako kontu honetan: ES96 3035 0007 200071130468. Azken eguna, maiatzak 5.
- 53ko kintoen bazkaria apirilaren 25ean. 12:30ean meza Maalan, 14:30ean bazkaria Txaridunan. 40 euro. Castrillejo estankotan eman izena hilaren 22rako.



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
 ☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)



**Aire egokituaren aparailu eramangarri bat erosi dut, logela batetik bestera erabiltzeko modukoa, zeinak konpresore txiki bat daukan leiho ondoan jartzeko. Konpresorea jartzeko bizilagunen oniritzia behar al dut?**

Berez, aire egokituko edozein sistema jartzeko beharrezkoa da gainerako bizilagunek onestea, estatutu-tako klausularen batean baimenduta egotea, edo bestela, bizilagunen komunitateak berak onartutako ekipo analogikoren bat egotea lehendik jarrita.

Normalean, aparailu horiek konpresorea fatxadaren kanpoko aldean jartzea eskatzen dute, eta horrek eraikinaren itxurari eragiten dio. Ekipo horiek, gainera, ekipo eramangarriek baino indar handiagoa izaten dutenez, zarratak ere eragin ditzakete, bereziki lokal handietarako aparailuak direnean.

Udalerrri batzuetan, proiektu teknikoa eta Administrazioaren baimena aurkeztea eskatzen dute horrelakoak instalatu ahal izateko. Dena den, aire egokituko aparailu eramangarriek ez dute fatxadan ezer lotzerik eskatzen, eta beraz eraikinaren kanpo-itxurari eragiten ez diotenez, ez dago zertan bizilagunei baimena eskatu beharrik.

**AHOLKUA: Aire egokitua jartzeko aurre-instalazioa eginga duten eraikin modernoetan ez dago bizilagunen baimen beharrik eta ezta Administrazioaren baimen beharrik ere.**

**ROSA M<sup>a</sup> PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





• Gure ametsa bete da! Ongi etorri gure artera, **Maral**



• Zorionak, **Luken**, apirilaren 9an 2 urte egin zenituelako. Muxu asko familia osoaren partez.



• Zorionak, **Alaine!** 5urte bete dituzu!! Patxo potolo bat etxeko partez.



• Zorionak, **Markel**, gaur 7 urte handi bete dituzulako. Patxo handi bat etxeko guztion partez.




• Zorionak, **Eulali**, aurreko igandean 3 urte bete zenituelako, beti bezain alai. Muxu handi pila etxeko partez!




• Zorionak, **Naroa!** Larunbatean 8 urte! Ondo-ondo ospatu eta muxuak denon partez, txapelduna.



• Eta 7an, 7 gure txapeldunak!! Zorionak, **Nora!** Patxo handi handi bat etxeko eta batez ere, Iratiren partez, polit hori!





• Zorionak, **Anuska eta Lukene**, 7 urte bete dituzuelako! Muxu asko etxeko guztien partez. Oso ondo gabiltza oporretan; bihar itzuliko gara, aita-txo!



• Zorionak, **bikote!** Ondo pasatu eguna, guk hala egingo dugu eta. Muxu handi bat guztion partez

Astebukaera honetan gaztelekua ohiko ordutegian irekiko dugu: 17:00etatik 20:00etara.





Ludotekako bazkide izateko hirugarren epea zabalik: apiriletik uztaileira: 15€. Deskontuak famili ugarietzat eta gizarte zerbitzuetako erabiltzaileentzat. Informazio gehiago Ludotekan.

ESKERTZA

## UZURI LARRAÑAGA GANTXEGI



2015eko apirilaren 4an hil zen, 57 urterekin

*Isiltasunean izan dira zure lana eta bizitza, beti izango zara gure oroimenean eta bihotzean.*

Uzuri optikako zure lankideak



## 10 barixakua

### Antzerkia

20:30 'Erdibana'

Txalo produkzioak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

## 12 domeka

### Kirola

10:00 Enduro moto lasterketa

Urnobitza motoklubak antolatuta, Mintxetan.

### Kirola

10:00 Kilimon Trail

Mendaroko mendi lasterketa, Herriko Enparantzan hasita.

### Antzerkia

16:30 Arratoitxo pinpirina

Glu Glu produkzioak taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian.

## 17 barixakua

### Zine forum

21:30 'Caos'

Haizeak antolatuta, Kultur Etxean. Loredi Salegik dinamizatuko du saioa.

## BOTIKA ORDUTEGIAK:

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

## GUARDIAK

09:00 - 22:00	22:00 - 24:00	24:00 - 09:00
10 Yudego 11 Fernandez 12 Fernandez 13 Oruesagasti 14 Barrenetxea 15 Ibañez 16 Garitaonandia 17 Etxeberria	Astelehenetik igandera  Garitaonandia	Elorza (Eibar) Juan gisasola, 18 (943 206 100)

\* Larrialdietarako Eibarko anbulategira jo behar da.

**Fernandez** Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)  
Tel: 943 756 142

**Ibañez** Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel: 943 751 638

**Oruesagasti** Kalebarren, 9 (Soraluze) - Tel: 943 751 384

**ZINEA**  
(HERRIKO ANTZOKIAN)

«Samba»

11, zapatua: 19:00 / 22:15 (VOS)  
12, domeka: 19:00  
13, astelehena: 21:30

«El país de las maravillas»  
(Ongarri zinekluba)  
16, eguena: 21:30

ESKERTZA

## ROSENDO FERNANDEZ-CAMPINUN BUXEDA

2015eko apirilaren 1ean hil zen, 84 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.




I. URTEURRENA

## ROSARIO ZULAIKA OSA

2014ko apirilaren 3an hil zen. Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, apirilak 11, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.

*Betiko izango zaitugu gogoan*






ESKERTZA

## RAMON ZUBIAURRE IZAGUIRRE

2015eko apirilaren 8an hil zen, 65 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



ESKERTZA

## ELO DEL VALLE CALLEJO

2015eko apirilaren 4an hil zen, 83 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,  
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

## JULIA GORROTXATEGI OSORO

*Betiko izango zaitugu gogoan.  
Maite zaitugu.*

Etxekoak



2014ko apirilaren 3an hil zen, 90 urte zituela. I. urteurreneko meza zapatuan, apirilaren 11n, izango da arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko San Bartolome parrokian. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.



I. URTEURRENA

## MANUEL LOIOLA IRIONDO

*Ikusten duzu goizean  
argia hasten denean,  
menditto baten gaiñean,  
etxe ttipitto aintzin xuri bat,  
lau haitz haundiren erdian,  
txakur txuri bat atean,  
iturriño bat aldean  
han bizi naiz ni pakean.*

2014ko apirilaren 9an hil zen, 82 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana.





# Gremioen GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.es](http://www.biena.es)  
[info@biena.es](mailto:info@biena.es)

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixillon 2-2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 74 34 90  
Faxa: 943 74 73 12  
[www.lodoso.es](http://www.lodoso.es)

### Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Santa Klara, 10  
☎ 943 74 05 47



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

San Roke 10-A behea B  
☎ 647 463 436

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 254 522

### Pagoaga

Biltegia eta tailerra  
San Antolin, 13  
☎ 943 740 279  
Bulegoa eta erakusketa  
Pedro Migel Urruzuno, 8  
☎ 943 943 740 512  
[tienda@pagoagasa.com](mailto:tienda@pagoagasa.com)

### Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 756 044/659 334 323

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro  
☎ 943 755 062/607 755 062

### Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 740 530/605 714 905  
Faxa: 943 531 825



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)  
Mendaro  
☎ 659 934 964



## Pinturak

### Biok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04

